

ISOLAMENDUA

1) Kasuak irakurri ondoren, kasu bakoitzean arriskua dagoen ala ez esan

- 9 urteko neska. Ez du lagunik eta, sarritan, bakarrik egoten da. Oro har, gutxi hitz egitea eskatzen duten jarduerak egiten dituzten taldeekin elkartu ohi da. Proposamenak onartzen ditu, agintzen dizkioten mandatuak egiten ditu eta ez du arreta bereganatu nahi. Ikasteko zailtasunak izan baditu ere, lasai lan egiten du emandako zereginen. Familiako kompromisoak direla eta, ezin du eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu. Izan ere, amak lan egiten duen bitartean, bera arduratzen da neba txikiagoez. Bere adineko beste umeen laguna izatea edo adiskidetasun hori indartzea oztopatzen dio horrek.

- 15 urteko neska. Etxean ongi moldatzen da nebarekin eta ahizparekin. Horiek gazteagoak dira. Eskolako urteetan zehar, neska isila eta zuhurra izan da. Oso gutxitan hitz egiten zien bere irakasleei eta ikaskideei. Eskolaz kanpo dituen pare bat lagunekin pozik dago neska hori. Eskuarki, horiekin ibiltzen da. Eskatzen dioten eskolako jardueretan parte hartzeari ez dio uko egiten. Askok gustatzen zaio irakurtzea, Zientziako liburuak, batez ere.

- 6 urteko neska. Itxura atsegina du. Bere begiak hazpegi bereizgarriak dira, eta nostalgia-begirada du. Maiz lotsati gisa deskribatzen dute. Besteen atzetan ezkututzen da, fisikoki. Ez da besteen artean nahasten. Batzuetan, keinuak erabiltzen ditu hitzez adierazi ordez. Jolasteko gonbidatzen duten arte itxoiten du, baina nekez baztertzen dute guztiz. Erraz gorritzen da, eta deseroso sentitzen da zerbait positiboa esaten diotenean ere. Hala ere, etxean, bere ama harrিতa agertzen da eskolan duen portaera halakoa izateaz. Izan ere, etxean ziur agertzen da, eta negarraren edo kasketen bidez nahi duena egin ohi du.

- 12 urteko neska. Bigarren Hezkuntzako lehen urtean dago. Taldeko ikaslerik gazteenetakoa da, eta familian erdikoa da. Lotsatia da, ikasgelan nahiz jolastokian. Ez du lagunik ikasgela berrian. Bere irakasleek pentsatzen dute gustatuko litzaiokeela gehiago parte hartzea, baina ez du behar hainbesteko trebetasun sozialik onar dezaten lortzeko.

2) Isolamendua detektatzeko balio duten ala ez esan ezazu. Horrez gain, prebentzioaren eta esku-hartzearen ikuspuntutik bakoitzak zertako balio duen esan ezazu.

- “Zer gertatzen ari da eszena honetan? Norbait bakarrik gelditzen denean atsedenaldira, zergatik uste duzu gertatzen dela hori? Zer sentituko zenuke bakarrik dagoena zeu izango bazina? Egon al zara noizbait egoera horretan? Zer sentituko zenuke? Zer egin genezake egoera hobetzeko?”

- “Zuriz margotuta dagoena zeu zarela pentsa ezazu. Zure lagunarekin zaude. Zure laguna nolakoa den kontatzeko istorioa idatzi. Zergatik da hain garrantzitsua lagunak izatea? Zer egin dezake lagun batek zuek?”

- “Zuriz dagoena zeu zarela pentsa ezazu. Lagun talde bateko kideak jolasten dabiltzala ikusten duzu. Nola sentituko zinateke taldeetik kanpo geldituz gero? Taldeetik kanpo gelditu den norbaiti buruz istorioa kontatu.”

3) Nola erabiliko zenuke istorioa? Zertarako balio du zure ustez? Buka ezazu...

Ana oso urdurik zegoen. Azkenean, aldatzeko eguna heldu zen. Beti baserrian bizi izan zen, eta orain hirira joatea aldaketa izugarria zen. Auzokoak eta lagunak izan nahi zituen. Baserrian ez zuen izan lagunak izateko aukera handirik. Eskolara joateko gogo handia zuen. Bere amak eskola-materialak eta soineko berria erosi zizkion. Klaseko lehengo egunean, irakasleak aurkeztu zuen gelan, nondik zetorren azaltzeko eskatu zion eta, ondoren, esertzeko agindu zion. Hutsik zegoen lekua bilatu zuen eta, bere eskola-materialak atera ondoren, lanean hasi zen. Aldamenean zeuden bi nesken elkarrizketa entzun zuen “Hori da hitz egiteko modua” (mira cómo habla). Oso gaizki sentitu zen. Irakasleak taldeka lan egin behar zela esan zuenean lasaitu zen. Gustura sentitu zen baina, atsedenaldira heldu zenean, bere taldeko jendeak alde egin zuen eta bakarrik gelditu zen. Hurrengo bi asteetan, bakarrik egotera ohitu zen. Neska batzuk berekin sartzen hasi ziren. Gauzak ezkututzen edo kentzen zizkieten, bultzadak eman, edo bere kontura barre egin. Anak ez zuen eskolara joan nahi. Goiz batean, ondo ez zegoenaren aitzakiarekin, etxean geratu zen...